

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko maiatzaren 3a. VIII. urtea. 2.218. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Bilduren aurkako epaiarekin ez daude ados eskualdeko eragile gehienak

Espainiako Auzitegi Gorenak Bilduren zerrendak hauteskundeetatik kanpo utzi ditu; Tolosaldean eta Leitzaldean elkarretaratzeak deitu dituzte gaurko

Auzitegi Konstituzionalak etzi emango du behin betiko erabakia; berretsiz gero, Orexan eta Elduainen PPren zerrendak bakarrik geldituko dira 03



LEGARCA

### → Ekainaren 12ko Eskola Txikien Festa aurkeztu dute Abaltzisketako 'txalburuek'.

Txalburu Eskolakoe, udaberri amaieran, jaia eta ospakizuna uztartu nahi dituzte etorkizuneko erronkekin, ez baitute ulertzen herria eskola txikirik gabe; hala eta guztiz ere, txikiak izan arren, denak elkartuta euren garrantzia azpimarratu nahi dute Eskola Txikien Festan. 06

**Khristina Baron**

HI! alderdiko Tolosako alkategaia



«Hamaikabatetik politika sozialari emango diogu beti lehentasuna»

Legealdi berrian «herriaren alde lan egiteko gogo biziz» dagoela dio

Elkarrizketa 02

**EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!**

Erregimenak erabakitzen ditugu erretorika, baina gure erretorikak erabakitzen ditu gure erabakia.

- Internetek egiteko: [www.gipuzkoa.net](http://www.gipuzkoa.net) web-gunera jo behar dugu, eta bertan...
- Beharrezkoak, lehendakari: Nazionalak ez dute behar dugu telefonoz edo internet bidez. Eskatzen ari gara...
- Aldundiak ebesta bidez ditzuten **autokudeazio proposamenak** berretseko, telefonoz edo internetaz...
- Aldundien gaitortasun bategi edo beste bategi egiten bideak...

**EUSKARAZ NAHI DUZULA ADIERAZ DEZAKEZU**

**Aska ezazu irudimena zure DISEINATU**

**ceinpro**  
TITULAZIO OFIZIALAK

**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN**

Heriz Pasealekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • 943 310 873 • [www.ceinpro.es](http://www.ceinpro.es)

**Udal eta Foru Hauteskundeak 2011** →

**Khristina Baron** ◊  
**H1! alderdiko Tolosako alkategaia**

Hamaikabat alderdiaren ardatzak laztasuna eta batasuna izango direla dio Baronek. «Udaletxeetan baliabideen optimizazioa bultzatuko dugu», dio.

# «Batzen bagara krisi hau gainditzeko gai izango gara»

**Rebeka Calvo** Tolosa

Khristina Baron (Tolosa, 1975) Hamaikabat alderdiko Tolosarako alkategaia da. Ostalaritzan egiten du lan, eta «herriaren alde lan egiteko gogo biziz» dagoela dio. Elkarriketan Javi Telleriaren laguntza izan du, alderdiko Tolosako arduradunetarikoa bat. Baronek H1!eko ardatz nagusiez hitz egin du, eta baita, Tolosako alkategaia denez, herrirako dituen proposamenaz ere.

## **Zein da H1!ek datozten lau urteetan jarraituko duen lanildo?**

Guztion artean aurrera egin nahi dugu, hau da, batasunaren alde egingo dugu lan. Papergintzaren krisia gainditu genuen orain dela urte batzuk, eta orain ere, denak batera, alderdi politiko guztiak, herritarrek... batuta, krisi hau gainditzeko gai izango gara. Bestetik, ekonomia arrakastatsu bat nahi dugu, eta ekonomia hori lana sortzera bideratu nahi dugu. Ongizate eta etorkizun on bat edukitzeko beharrezkoa da. Izan ere, gizarte orekarik gabe, ez dago garapen ekonomikorik. Ongizateko politika indartu behar dugu. Enpresek punta-puntako teknologia izan behar dute, eta gu horretan aritutako gara lanean. Beti ere ingurugiroa babestuz. Prestatutako jende gazte asko dago, eta horregatik merezi du ahalegin bat egitea punta-puntako teknologia duten enpresak Tolosaldean kokatzeko.

## **Eta nola egin daiteke hori?**

Hasteko industria lurzorua egokituz. Apatta Erreka nahiko ondo bete da, eta orain gunea luzatu behar dugu industria mota hori hor kokatzeko. Hala ere, baserriarren lana gogoratu behar dugu. Tolosa oso harro dago bere azokarekin, baina baserriarren lana da ezinbestekoa. Desagertzen ari

da, eta horregatik da oso garrantzitsua beraien jarduerari bideragarritasuna ematea. Ona izango litzateke, Foru Aldundiak babes-tutako lurralde bankua egitea, horrela industrigune garen bezala, nekazalgunek ere sortu ahal izateko. Gure sustraia hor daude, ezin dugu hori ahaztu. Udalek nekazalgunek sortu ahal izateko udal ondasunak onbideratu behar dira. Zentzu honetan esan behar dugu, gure politika beti laztasunean oinarrituko dela, baina beti ere, lehenasuna ongizateko gastuei emanda. Gurean bizi diren kanpotarrei begira, hauen integrazioa bilatuko dugula esan

## **«Industrigune garen bezala nekazalgunek sortu behar ditugu»**

behar dugu. Beraien jatorriak banez behar ditugu, baina gure bizimoduaren, kulturaren... integratuz. Eta horretarako baliabide oso garrantzitsua dugu, gure altxorrik handiena: euskara.

## **Gazteen artean alokairuzko etxebizitzak bultzatzeko asmoa ere aipatu izan duzue.**

Hirigintzari dagokionez, orekatutako garapena defendatuko dugu. Lehenasuna da batez ere, gazteei etxebizitzak ematea, baina ez, jabe-goa ematea, baizik eta bizitzeko leku baten eskubidea bermatzea, horretarako alokairua bultzatuz. Tolosako kasuan udalak badu Laskorain Goikoa guneko jabe-tzaren %85a eta oso egitasmo jatorria izan daiteke, izan ere, jende gazteak ez dauka gurasoen etxetik joateko aukerarik, eta beraz, gune horretan alokairua bultzatzea ezinbestekoa da.

## **Eta zer egingo zenukete Bonberenearekin?**

Gure asmoa ez da Bonberenea desagertaraztea, beraiekin elkar-tzea baizik. Beraien ideiak jaso nahi ditugu, eta gazteriari protagonismoa eman. Laskorain Goikoa epe ertainera garatzeko da, eta horregatik orain daukagu denbora hitz egiten joateko, eta beraiek ere euren artean eztabaida sortzeko. Eskutik joan behar gara, baina beti ere protagonismoa beraiei emanda. Hitz egiten joan nahi dugu, Laskorain Goikoan makinak sartzen direnerako gunea non kokatuko den, egokitutako Bonberenea berria non egongo den, jakin behar dugu. Izan ere, momentu honetan dauden lekua horretarako egokitu zen, eta gure ikuspuntua da, Bonberenea egitea, ez egokitzea, baizik eta leku bat egokitzea beraiek eta bizilagunak lasai egoteko. Zentzu honetan esan behar dugu, asko gustatuko litzaigukeela herritarren iritzia momenturo eza-gutzea. Galdetzeko lasaitasuna izan behar dute, eta gertutasuna landu behar dugu. Herriarekin bat egin nahi dugu.

## **Politika sozialari emango diozue lehenasuna, ezta?**

Gu ezkerrekoak gara, sozialdemokratak, eta gure lehenasuna bizi eskubideen alde egitea da. Nazionalistak gara, eta independentzia nahi dugu, erabakitzeko independentzia nahi dugu. Nazio-

## ↓ **Gertutik**

■ **Zer egiten duzu politikagintzatik deskonektatzeko?** Familiako baserria joaten naiz 20 hilabete dituen semearekin. Lagun gutxi baina oso onak ditut, eta haiekin egoteak ere laguntzen dit.

■ **Herritar bezala zer espero duzu politikariengatik?** Egia eta herritarren interesak babestea.

■ **Zerk emegatzen zaitu?** Ustelkeriak. Hamaikabateko ogasun diputatuak, Pello Gonzalezek, garrantasunaren alde egin du, eta hori da gure ardatza.

nalismoa krisi txiki batean dago, eta horregatik batasuna nahi dugu. Nahiz eta denak ez pentsatu berdin, batu eta denak batera egin behar dugu lan. Lehenasuna politika sozialari emango diogu beti. Politika beste modu batean egin nahi dugu, eta garrantasuna nahi dugu.

## **EAtik banandutako hainbat kargudun publikok osatu zenuten alderdi berria, zergatik?**

**Javi Telleria:** Gu beste alderdi batean geunden, eta momentu batean esan genuen ez geundela ados gure alderdiaren politikarekin, eta hausnarketa prozesu bat abiarazi genuen nazionalistok lehen-dakaritza zergatik galdu genuen aztertzeke, ikusteko PSOEek eta PPK zergatik irabazi zituzten herri batzuetan postuak... Nazionalismoa berritu egin behar zela ikusi genuen. EAK gerora eman dituen pausak ikusita, denborak arrazioa eman digu. Gure soziologia eta ideologia ez zenez

## **«Laskorain Goikoan gazteentzako alokairuzko etxebizitzak nahi ditugu»**

hori, beste alderdi bat egitea erabaki genuen. Gure batasuna lortu nahi dugu. Lotzen gaituena, batez ere krisi garaian, abertzaletasuna da.

## **Lehenagoko alderdikide batzuk EAJra joan dira.**

Ez dugu ezer esateko. Gure ardatza oso argia da, ez gara EAJra joango, beraiekin lan egiteko prest gaude, hala ere. Baina beraien helburua bakartasuna da, eta gu ez gara horretan sartuko.

## **Nola ikusten duzu udaletxeen kudeaketa krisi egoera honetan?**

Laztasuna da ardatza, eta baliabideen optimizazioa lortu behar dugu. Ongizatea bermatu behar dugu, gastu hauek berdin mantendu behar ditugu, eta behar bada, diru gehiago bideratu.

## **Aro berri bat ireki da Euskal Herrian; ETArek agiriak, Sortu eta Bilduren aukerak... zer duzue esateko honen inguruan?**

Gizartea nahiko nazkatuta dago.

Ulergarria da sektore batzuetan ez sinestea zer gertatzen ari den, eta zer esaten den. Estatu mailan sinestezina da zein pausu ematen ari diren, demokrazia banatzen ari dira interesen arabera, eta azken su-etenean ere ikusi genuen nola herri batzuetan onartu ziren zerrenda batzuk eta beste batzuetan ez. Gure herria antitza da, eta gaindituko du ETArek orbanak. Gure herrian ez da ezer aurreratu ETA zegoelako, eta desagertzen bada, gure herriak aurrera egingo du abiadura handian, turismoaren gorakadaren azken datuekin ikusi den bezala.

## **Tolosaldean AHTren lanak hasi berri dira, eta herritarren protestak izan dira. Zein da Hamaikabaten jarrera azpiegitura honekiko?**

Hamaikabat AHTren alde dago. Azpiegitura handiei ezetz esaten dion sektorea ez dugu ulertzen. Aurrera pausoa den guztiari ezin diogu ezetz esan. Zenbatu egin beharko genuke zenbat dauden AHTren alde, eta zenbat kontra. Tolosaldean argi dago gizartea AHTren alde dagoela.

## **Eskualdean badago pil-pilean dagoen beste gai bat; Osasun Publikoaren Aldeko Plataformak kaleratu duena. Tolosa eskualdeko ospitale bat ez duen eskualde bakarra dela diote, eta 10.000 sinaduratik gora bildu dituzte osasun publikoaren alde.**

Erantzukizunez jokatu nahi dugu. Gure alderdiko Joxe Gurrutxagak bere garaian eskatu zuen eskualdeko ospitalea, eta ia-ia errotuta zegoela esan zitoten. Guretzako lehenasuna gaixokak dira, eta gaixoei erantzun on bat eman behar diegu. Pentsatu behar dugu zergatik esaten den osasun pribatua txarra dela, eta publikoa ona. Kasu honetan gainera, Asuncion klinika aspalditik du hitzarmena Osakidetzarekin, eta kalitateko Q-a ere badu, oso gutxi dute izendapena. Susmagarria iruditzen zaigu gai hau hauteskunderen bezeran ateratzea. Guk gaixoen babesa bermatzea eskatuko dugu. Lanpostuak ere kontutan hartu behar dira, bai sektore pribatuan, eta baita publikoan ere.



R. CALVO

# Auzitegi Gorenaren epaia politikoa dela uste du eragileen gehiengoak

Bildu balio gabetu du Auzitegi Gorenak; etzi Auzitegi Konstituzionalak behin betiko erabakia hartuko du

Eskualdean, erabakia salatzen elkarretaratzeak antolatu dituzte gaur

## Erredakzioa

Espainiako Auzitegi Gorenak Bilduko zerrenda guztiak balio gabetu ditu. Datorren ostegunean, maiatzaren 5ean, Auzitegi Konstituzionalak, bere aldetik, behin betiko erabakia hartuko du koalizioaren inguruan. Honen aurrean, Amasa-Villabonako Bilduk, Auzitegi Gorenaren gertaeraren larritasuna nabarmendu nahi izan du. Era berean, «egoera honi herri bezala aurre egin behar» zaiola azaldu dute, «iruzur honi iniziatiba politikoa eta demokratikoa erantzuteko».

Bilduren balio gabetzeak, eskualdeko bi herritarra ondorio zuzenak ekarri ditu. Elduainen eta Orexan PP izango da indar politikoko bakarra, Auzitegi Konstituzionalak balio gabetzea berresten badu. Herri hauetan, bozken %5a lortu beharko du PPK.

Gaur, elkarretaratzeak izango dira eskualdeko herri gehienetan, *Eskubide guztien alde, ilegaltzaziorik ez!* lelopean, taulan ikus daitezkeen moduan.

## ↓ Elkarretaratzeak

- **Tolosa.** 20:00etan Plaza Zaharrean.
- **Ibarra.** 19:30ean udaletxe aurrean.
- **Leaburu.** 20:00etan plazan.
- **Villabona.** 20:00etan plazan.
- **Zizurkil.** 20:00etan Joxe Arregi plazan
- **Anoeta.** 19:30ean plazan.
- **Alegia.** 19:30ean plazan.
- **Ametzeta.** 19:30ean Abaltzisketako bidegurutzean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean zuzian.
- **Leitza.** 20:00etan udaletxe aurrean.

«Ados egon edo ez, argitu beharra dago»

**Joxe Miguel Goikoetxea**  
UPN

«Ez da ezer aldatu. Errekurtsoa jarrita dago Konstituzionalean. Beraz, hortik pasatu arte zer irizti emango dugu guk? Nik beti-

koa esango dut: ados edo ez, baina argitu beharra dago. Guk, UPNtik itxaron egin behar dugu. Badaramatzagu hogeitxaroten. Beste urte batzuk gehiago egoteagatik ez dio axola.»

«Sententzia politiko hutsa da, eta deskonfiantza sortzen du»

**Javi Telleria**

Harnaikabat

«Espainiako Estatuak bere demokraziarekin jokatu du. Ideiak ilegalizatzen dituzte, eta ez alderdiak bakarrik. Eta hori oso arrisksua eta larria da. Jakin nahiko nuke Espainia guztian zerrendak Bildurenak bezala begiratu balituzkete, zer pasako litzatekeen. Denak ilegalizatuak egongo ginateke! Sententzia politiko hutsa da eta deskonfiantza handia sortzen du. Dena den, guztia hauteskunde bezperan izatea susmagarria da. Jokatu ari dira.»

«Erabakiaren aurka dauden beste alderdiak zer egiteko prest dauden jakin nahi dugu»

**Oihana Lopetegui**

LAB sindikatua

«Guk argi ikusten duguna da, gatazkaren alde bat pausoak ematen ari dela, eta beste aldetik, horrelako erabakiak hartzen direla. Argi ikusten dugu ez dela erabaki juridiko bat izan, erabaki politiko ba da hartu dutena. Euskal Herriko oinarri sozial handi bat hauteskundeetatik kanpo uzteko apustua egin dute. Azken asteotan analisi politiko mordoan entzun dugu, eta esan bezala, erabakia politikoa da. Gu argi eta garbi erabakiaren aurka gaude, eta datozen hauteskundeetan legez aurkezteko aukera duten, eta erabaki honen aurka dauden alderdi politikoak, zer egiteko prest dauden jakin nahi dugu. Pausoak emateko garaia da,



Alegiako Bilduko hautagaiek aurkezpena egin zuten pasa den larunbatean. Irudian, Unai Iraola alkategaia hizketan. E. MAIZ

eta beraiek ere konpromisoak hartu behar dituzte.»

«Demokraziari eta euskal gizarteari egindako iruzurra da»

**Onintza Lasa**

EA

«Oso albiste txarra eta larria da. Berriro ere, atzetik, bultzada eta interes politiko nabari bat dagoela ikusten da. Demokraziarekin diren oinarri-oinarrizko eskubide batzuei eraso zuzena egin zaie: hainbeste pertsona aukerarik gabe geratzea, egiten zaizkien salaketez gain. Hau iruzur egitea litzateke, bai demokraziari eta baita euskal gizarteari ere, jende asko eta askoren aukera bat kanporatu nahi baita. Eusko Alkartasunatik argi dugu aurrera jarraitu behar dugula gure tresna guztiekin, egoera honi aurre egiteko, behar den lekuetan salatuz. Eta noski, beti gure bide politiko eta demokratikoak aplikatuz. Ezin dugu isilik egon horrelako injustizia baten aurrean. Aurrera egingo dugu, hauteskundeetaz haratago, herri honen bakea eta normalizazioa jokoan daude eta.»

«Zer egin behar du ezker abertzaleak hauteskundeetan egoteko?»

**Jokin Bildarratz**

EAJ

«Egenezina, pena handia... hori izan da nire lehen pentsamendua. Hauteskunde batzuetan, demokraziaren barruan, parte hartzeko aukera goreneko elementu bat da, nahiz eta ez den bakarra. Alderdi bakoitzak bere

mezuiak, ildoak edo estrategiak plazaratzen ditu eta gero gizarteak aukeratzen du. Hori puskatzen denean, sistema demokratikoak ikaragarriko gabezia azaltzen du. Zer egin behar du ezker abertzaleak hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko? Hasieran, indarkeria gaitzestea eskatu zitzaion; gero, Batasunarekin zerikusirik ez izatea... Orain indarkeria gaitzesten ari dira, idatziz ere egin dute. Zer gehiago egin behar dute? Honek ez du ez hanka, ez buru. Nire ustez, akatsa oinarri-oinarrian dago: Alderdien Legean. Interes araberako garapena izan du, eta orain horren ondorioak jasaten ari gara.»

«Lotsagarria da auzitegi batek horrelako erabakiak hartzea»

**Antton Carrera**

Ezker Batua

«Argudio juridiko bakar bat ere ez dago, denak politikoak dira. Alde horretatik, benetan lotsagarria iruditzen zait auzitegi batek honelako erabakiak hartzea. Hemen lehenago ere gertatu dira, eta berriro berdin gaude. Egoera benetan juridikoki aztertu ondoren, ez dago arrazoirik balio gabetzeko. Beraiek suposizio batzuk dituzte, eta horixe da beraien argudio guztia.»

«Konstituzionalak erabakia bertan behera utzi behar du»

**Iñaki Irazabalbeitia**

Aralar

«Gorenaren erabakia ikuspegi demokratikotik erabat onartezina da, eskubide oinarritzak, aukeratua izatekoa, urratu egi-

ten baitu. Euskal gizartearen zati adierazgarri bat, gainera, hauteskundeetatik kanpo utzi nahi dute PP eta PSOEn interes elektoralengatik. Erabaki honek ez dio mesederik egiten ez bake, ez normalizazio politikoaren prozesuari ere. Auzitegi Konstituzionalak lotsa demokratikorik baldin badu, erabakia bertan behera utzi beharko luke.»

«Muga guztiak gainditu dituzte honekin»

**Egoitz Iturbe**

ELA sindikatua

«Onartezina da. Prozesu demokratikoek ez dute horrelako jarraitze onartzen, eta muga guztiak gainditu ditu honek.»

«Guk lanean jarraituko dugu»

**Gorka Lizaso**

Alternatiba

«Ikusita zegoen Auzitegi Konstituzionalera jo beharko genuela. Guk, hala ere, lanean jarraituko dugu gure programak aurkeztuz. Ziur gaude hauteskundeetan egon, egongo garela.»

«Garbi jokatzeko dutenek parte har dezatela»

**Oscar Renedo**

PSE-EE

«Guk, besteetan bezala, epaia onartu eta errespetatu egiten dugu. Garbi jokatzeko duten guztiek parte har dezatela. Denok jokatzeko dugu karta berdinekin. Ez du balio markatuta dauden kartekin edo legalak ez diren kartekin sistema demokratikoa batean parte hartzea.»

**Asteasu**



**SIMONEN JAITSIERAREKIN, ELIZMENDIKO JAIK OSPATU DITUZTE**

Asteasuko Elizmendin, festa izan da nagusi. Larunbatean eman zieten jaiak hasiera Simonen jaitsierarekin. Gozokiak botatz egin zuten elizako kanpandoretatik beheko aldean. Haurrak eta gurasoak zain izan zituzten. Jarrasari hauren duatola izan zen, eta zezen txiki eta poneyak ere izan zituzten. Eta herri afaria egin zuten Kupela taldea lagun zutela. Igandean, hamaiketako, toka txapelketa, herri kirolak izan ziren, eta Laja eta Landakanda giroa alaitzen. Eta Simon ligo zeri, festak amaituz. [L. ANDUEZ/AGENCI](#)

**Orexa**



**SANTA KRUTZ EGUNAREN FALTAN**

Ostiralean hasi zituzten herriko jaiak, oilarra jaiarekin batera. Orduz geroztik, musika, Txan magoa, herri kirolak, ume jolasak, merienda, herri afaria, bertsoariak sagardo dastaketa... denetik izan dute. Hala ere, azken eguna izango dute, gaukoak. Santa Krutz eguna ospatuko dute. [S. ANDUEZ/AGENCI](#)

**PREST**  
**MONDRAGON**  
UNIBERTSITATEA

**ATE IREKIAK**

**Goi Eskola Politetnikoa**  
ARRASATE | MAIATZAK 7 | larunbata, 10:30

**MAIATZAK 19** | unibertsitate masterra osteguna, 17:30

**Enpresagintza Fakultatea**  
ORATI | MAIATZAK 21 | larunbata, 11:00

**Humanitate eta Hozkuntza Zientzien Fakultatea**  
ESKORRIATZA | MAIATZAK 14 | larunbata, 11:00

902 110 436 | [www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

**XIII. HITZA** zuzen-irudi-argazki lehiaketa

Bidalai argazkiak [thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info) helbidera.

**1. Saria** | Photokati-4 irudi-irudiak Sony DSC-HX1 argazki kamera.

**2. Saria** | Satzu landetan bi gauko egomalka.

**3. Saria** | Amaroze jateetxean dirudia.

[www.hitza.com](http://www.hitza.com)

**Leitza**



**PLAZAOLAN ANTZINAKO TRENEN BIDEAK EZAGUTUZ IBILI DIRA**

Natur Bideen Eguna ospatu zuten larunbatean, Leitza. Eguraldia lagun izan zuten eta 300 bat lagunek hartu zuten parte. Plazaola Patzuzgo Turistikoak, Leitzaoko Larraungo eta Lekunberriko udalbatuekin batera antolatzen du egun hau 2002. urteretik hona. Aurten goi aldeko Uitziko tunelaren inguruan antolatu dituzte. Lekunberriko eta Leitzaoko geltokietan hasi ziren bideak Uitziko tunelaren hegaldian elkartzeko. Goizeko 09:00etan familia eta helduak atera ziren, eta 11:00etan bertiz, haurren

irteera egin zuten, palazioen laguntzarekin. Behin guztiak elkartzen, tunela gurutzatzen zuten Tren Txutxuak bere bidaiak hasi zuen Plazaola Natur Bidean baina, Jarrailan, guztiak Leitzaoko plazan elkartu ziren. Bertan, trikitaliak izan ziren musika joaz, eta pintxoak, zozketak... izan zituzten parte hartu zutenek. Baina Tren Txutxua ere ibili zen, Leitzaoko kaleetan baina. Haur eta heldu guztiak egin ahal izan zuten Tren Txutxuaren barnean sartuta bilbidea. [L. ANDUEZ/AGENCI](#)

**Baliarain**



**170 LAGUN, TXEKOR JATEAN**

Unteroko ohi turari jarraituz, maiatzaren lehenean, txekorra lan zuten Baliarainen. Gau osoan, txekor osoa erretzen eduki ostean, 170 lagun elkartu ziren herriko frontoian bazkaltzeko. 10:00etatik aurrera, loreen postua izan zen, nahiz zuenak erosteko. Txekorra handia zela eta, izter bat bertaratu artean zozketatu zuten. [S. ANDUEZ/AGENCI](#)

**Zizurkil**



**ELKARTASUNA ADIERAZIZ**

Larunbatean, II. Aiztondorel Elkartasun Eguna egin zuten Zizurkil Golan. Aiztondorel balarako Senideak elkarteak kideak antolatu zuten. Egun guztiko egitaraua izan zuten gazteentzako pilotariak, herri kirolak, bazkaria, ekitaldia, haur jolasak eta bertso saioa izan zituzten. Eta euskal presoak gogoa izan zituzten. [L. ANDUEZ/AGENCI](#)

**TX** sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare** du

**LAGUN ARO GBC** | Cal Zaragoza | 2010ko maiatzaren 5 - Osteguna | 20:00etan | Donostia | Buzen

**Benito Lertxundi** | Maiatzak 6 - Ostirala | 22:00etan | Tolosa | Leizorren

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare** du

**Ruper Ordorika** | Maiatzak 7 - Larunbata | 22:30ean | Villabonako | Oizadoren kiroldegian

943-65 56 95 telefono zenbakira



Mikel Olano, Joxe Ramon Mujika, Pilar Maiza eta Imanol Zubizarreta, atzoko aurkezpenaren. I.GARCIA

## Jaia eta etorkizuneko erronkak uztartuko dituzte Eskola Txikien Festan

Aurtengo festa Abaltzisketan izango da, ekainaren 12an; 1988. urtetik antolatzen da urtero, jaia

**Imanol Garcia** Abaltzisketa

Eskola Txikien Festaren aurkezpena egin zuten, atzo, Donostian. Festa Abaltzisketan izango da, ekainaren 12an, eta horren berri eman zuten bertako Txalburu Eskolako ordezkariak, zein EHIGE gurasoen elkarteko eta Eskola Txikien gurasoen elkarteko ordezkariak. Txalburu Eskolako

### Iragarki laburrak

#### LANA

■ **Sukaldaria Villabonan.** Sukaldaria behar da eguneko menuak, kazuelak eta taberna baten sukalde arduradun izateko. Euskara jakitea ezinbestekoa da, baita antzeko lanetan eskarmentua izatea ere. Bidali curriculum, *villabona2011@gmail.com* helbidera. Informazioa: 661 36 94 24.

#### ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokatzeko moduan Iruran. 80 metro karratu, bi logela eta garaje txikia aukeran. Interesatuak, deitu 636 53 00 00 telefono zenbakira.

#### SALGAI

■ **Aulkixtoa.** Salgai 'Jane' haur aulkia, bere osagai guztiekin: kapazoa, maxi-cosia eta patinetea. Interesa duen edonork, dei dezala 678 47 66 12 telefono zenbakira.

gurasoa den Joxe Ramon Mujikak azaldu zuenez, «jaia eta ospakizuna uztartu nahi ditugu etorkizuneko erronkin. Ez baitugu ulertzen Abaltzisketarik eskola txikirik gabe». Mujikaz gain, prentsaurrekoan izan ziren Pilar Maiza Txalburu Eskolako zuzendaria, Mikel Olano Gipuzkoako Eskola Txikien gurasoen elkartearen koordinatzailea, eta EHIGEko Imanol Zubizarreta. Txalburu Eskolako zenbait ikasle ere bertan izan ziren.

1988tik urtero antolatzen da Eskola Txikien Festa. Iaz ere Tolosaldean izan zen, Altzon. Mikel Olanok azaldu zuenez, festaren helburua da «denak elkartu eta nahiz eta txikiak izan beren garrantzia azpimarratzea». Olanok gaineratu zuenez, «garbi eduki behar dugu eskola herri txikieta-ko bihotza dela». Hain justu, elkarrekin «egun eder bat pasatzea» festaren helburuetako bat dela azaldu zuten, baina «benetako helburua haratago doa», esan zuen Olanok. «Saiatu behar dugu honen aitzakian ahalik eta oihartzun handiena lortzen, gizarteari nor garen eta zer garrantzia daukagun erakusten», gaineratu zuen. Festak eskola txikientzat

eta herri eta auzo txikientzat «zeresana handi» duela azaldu zuen Olanok. «Honek denak konpromiso eta lan handia eskatzen du, baina egin beharra dago».

#### 37 ikasle

Txalburu Eskolan egun 37 ikasle daude, lau gelatan banatuta. 25 urte ingurutan ez zen eskolarik izan. 1975ean itxiz, eta 1999 irailan ireki zen berriro, haur hezkuntza mailako gela bat, Amezketako Zumadi Eskolaren barruan. 2004/2005 ikasturtean bere eskola lortu zuen berriro Abaltzisketak: Haur Hezkuntza osoa eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako izan zituen. 2006ko abenduan jaso zuten baimena Lehen Hezkuntza osoa herrian izateko.

Egun dauden ikasleak lau gelatan banatzen dira. Jangela zerbitzua ere badute, eta egunero 16 ikasle baxkaltzen dute herriko Ostatu Tabernan. Joxe Ramon Mujikak zioenez, «Txalburu Eskola sortu zen unetik hona bide luzea jorratu behar izan dugu. Bide honetan gauza asko lortu ditugu, eta gaur egun harro sentitu gaitezke daukagun guztiarekin. Baina esan ohi den bezala, beti dago zer hobetua eta zer egina».

## Europak ez du Lasa eta Zabalaren auziko epaia berrikusiko

Galindok eta beste lau zigortuek helegitea jarri zuten Estrasburgon, epaiketa ez zela justua izan aldarrikatuz

**I. Garcia**

Estrasburgoko Auzitegiak ebatzi du Espainiako Estatuak ez zuela Europako Giza Eskubideen Ituna urratu Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren bahiketari eta hilketari bu-

ruzko epaiketari. Hain justu, Europako Giza Eskubideen Auzitegiak esan du Espainiak epaiketari ez zituela epaiketari justua izateko eskubidea, errugabetasun prentzioa eta defentsa eskubidea puntuak urratu.

Angel Vaquero, Enrique Dorado eta Felipe Bayo guardia zibil ohiak, Enrique Rodriguez Galindo Guardia Zibileko jeneral ohiak eta Julen Elgorriaga Gipuzkoako gobernadore zibil izandakoak helegitea sartu zuten 2003an Estrasburgoko Auzitegian.

## Odoleko berotasunak



### Bioaniztasunetik

**Jon Ander Galarraga**

Biologoa

**T**xikitatik erakutsi ziguten animaliak odol berokoak ala odol hotzekoak bezala sailkatzen. Odol hotzekoak ugariagoak dira, hauetan sartzen dira arrainak, anfibioak (igelak eta uhandreak) eta narrastiak (musker eta sugeak). Odol berokoak urriagoak dira, eta bi talde handi daude ezaugarri honekin, hegaztiak (lumak dituzte eta hegalaria dira gehienak) eta ugaztunak (ilea dute eta amaren titia edaten dute gehienak).

Odol beroko animaliak bereziak dira, muskuluen mugimenduz gorputzeko temperatura erregulatzeko gaitasuna baitute. Adibidez, hotzak gaudenean, dardara deritza muskuluen uzkurdua labur eta ugariak egiten ditugu, honela, beroa sortzen dugu eta gorputzeko temperatura mantendu edo erregulatu dezakegu. Esan beharrik ez dago, gorputz temperatura 36 gradu inguruan mantendu behar dela, bestela gorputzean dauden prozesu kimiko ugari ez baitira ematen.

Odol hotzeko animaliek ordea, ez dute beren kasa gorputza berotzeko ahalmenik eta inguruko beroa behar dute gorputza berotzeko. Horregatik, goizetan eguzkia hartzeko joera dute, eguzkiak bere gorputza berotzen du, eta modu honetara gorputz barneko

prozesu ugari martxan ipintzen dira. Goizeko bostetan mendira bagoaz eta harriren azpiak miatzen baditugu, sarritan sugandila lokartuak aurkitu ahal ditugu. Bat hartzen badugu oso hotzak egon ohi dira, baina gure eskuen berotasunarekin kontaktuan ipintzean aktibatu egiten dira eta ziztu bizian alde egiten dute.

Odol hotzeko animalientzako, errepidea eguzkia hartzeko leku oso egokia da, gainera beroa atxikitzen duenez, gauean ere bero egon ohi da, horregatik izaten dira musker ugarien berotze leku eta heriotza leku ohikoena.

Zenbat eta animalia handiagoa izan, orduan eta denbora gehiago behar du berotzen, beraz odol hotzeko animaliak normalean txikiak izan ohi dira. Handienek (adibidez, gure musker handiak) denbora ugari egon behar du errepidean etzanda berotzen, horregatik izan ohi da autoek gehien edaten dute gehienak.

Odol beroa dugunok beraz, ez dugu denborarik galdu behar goizero eguzkia hartzen. Hala ere, gure gorputza berotzeko energia kostu handia dauka, eta jaten ditugun kalorien zati handi bat horretarako erabiltzen da. *Bikini operazioa* egin nahi duzuenentzako Bioaniztasunetik-en dieta: izozkailuan egunero ordubetxo bat egotea, honela, zuen gorputz energia gehiago gastatuko du gorputza berotzen eta jandakoaren zati handiago bat erabili-ko duzue. Ea hurrengoan supermerkatuko izoztutakoan atalean norbait ikusten dudanez etzanda marisiko izoztuen artean igerian!

Eta hotz-beroak utzirik, hurrengo zutabearen gaia zuen esku uzten dut, bota proposamenak! *bioaniztasunetik@hotmail.com* edo Facebook-en.



↓ **Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>GIPUZKOAKO HERRI ARTEKO TXAPELKETA</b>	
<b>Berrobi-Bidegoian</b>	
<b>Kadeteak</b>	16-22
<b>Jubenilak</b>	8-22
<b>Nagusiak</b>	22-17

**Amezketak-Albztur**

<b>Kadeteak</b>	22-3
<b>Jubenilak</b>	7-22
<b>Nagusiak</b>	3-22

**ESKUZ BANAKAKO TXAPELKETA**

<b>Lehen Maila</b>	
<b>Bengoetxea VI - Lasa</b>	22-10

**Bigarren Maila**

<b>Jaunarena - Galarza</b>	22-18
<b>Olaetxea - Leiza</b>	22-2

**ARRAUNA****ESPAINIAKO BATEL TXAPELKETA****Etorbizuneko emakumeak**

1. Amegrove
2. Ares
3. Esteirana
4. Tolosaldea

**Infantil mutilak**

1. Tiran
2. Deustuko
3. Robaleira
4. Tolosaldea

**Kadete mutilak**

1. Amegrove
2. Astillero
3. Cabo de Cruz
8. Tolosaldea

\* Ferrolen (Galizia) jokatu zen estropada asteburuan.

**Tolosaldeko Arraun Klubeko kideak «gustura» agertu dira hiru taldeak finalean sartu izanagatik. Hori bai, estropada «kaos izugarria» izan zela ere esan dute; balizak mugiturik, haserreak...**

# Bengoetxea VI.ak, Olaetxeak eta Jaunarenak aurrera egin dute

Herriartekoan itzulerako partidak hilaren 6an jokatu dira Bidanian eta Albizturren

**Asier Imaz**

Asteburu honetan pilotaz gozatzeko aukera bikaina egon da. Alde batetik, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketaren lehiak jokatu dira, eta bestetik, gure profesionalak, partida bikainak jokatu dituzte.

Herriarteko Txapelketan joaneko partidak jokatu zituzten Berrobi eta Bidegoianek, eta Amezketak eta Albizturrek. Elkarren aurkako norgehiagoka hauetan, Bidegoian eta Albiztur aurreratu dira. Itzulerako partidak, hilaren 6an, ostiralean jokatu dira Bidanian eta Albizturren, 19:00etan.

**Eskuz Banakako Txapelketa**

Lehen mailan Oinatz Bengoetxeak herenegun jokatu zuen Aritz Lasaren aurka, Eibarren. Partidaren lehen zatia izugarria izan zen: bikaina. Lasa eta Bengoetxea



Berrobiko eta Bidegoiangoko pilotariak. M. UGARTEMENDIA

VI.ak antzeko jokoa erakutsi zuten, eta benetan pilotaz gozatzeko aukera egon zen. Airez jo eta su ibili ziren: erasoan eta defentsan. Lasak teknika hobexegoa erakutsi arren, leitzarrak erakustaldia eskaini zuen: sendo, sasoiko eta serio. Gauzak horrela, leheritzen lehena Lasa izan zen, 9-8 galduten zihola. Bigarren zatian, Oinatz Bengoetxea jaun eta jabe

izan zen. Lasa nekaturik ikusten zen eta leitzarrak tantoa amaitzeko erraztasun handiagoak aurkitu zituen. Amaieran, 22-10 nagusitu zen Oinatz Bengoetxea. Hurrengo partida Patxi Ruizen aurka jokatu beharko du.

Bigarren mailan Jon Jaunarenak eta Mikel Olaetxeak jokatu zuten. Mikel Olazabal aresoarra, aldiz, txapelketa utzi beharrean

aurkitu da lesio bat dela medio. Lizartzarrak erakustaldia eskaini zuen eta Leiza 2an utzi zuen. Jon Jaunarenak Ladis Galarzaren aurka jokatu zuen Eibarren, herenegun. Leitzarrak 22-18 irabazi zuen. Partidaren hasieran, bosgarren tantoan, eskuin eskua minduta sentitu zuen eta partida amaieran pilotari jotzeko ere arazoak izan zituen.

## Jon Rekondo txapelketatik at gelditu da

Eneko Saralegi eta Zabaleta aizkolariek sendo jarraitzen dute aurrera, 19 urte azpikoan mailan

**A. Imaz**

Banakako Aizkolaritza Txapelketan leitzarrak izan dira protagonista pasa den asteburuan.

Alde batetik, 19 urte azpiko-

tan, Zabaletan aurrera jarraitzeko txartela lortu du. Maila beretan, Eneko Saralegik ere aurrera jarraitzen du.

Horretarako, iragan astean bi lehia irabazi beharrean aurkitu zen leitzarra, bata Urduñan eta

beste Estibalizen. Txapelketatik at gelditu dena Jon Rekondo izan da.

Elite mailako aizkolaritari, iragan ostegunean, Gasteizen, aurre hartu zioten Lopez Azpilikueta eta Atutxa II.ak.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

<p><b>HILETAREN BALIOA</b> Txina Inperiala</p>	<p>Funeraria Vascongada ere pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko gutxiatara egokitzen diren Hiletza Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.</p>	<p><b>FUNERARIA VASCONGADA</b> EHORZKETAK</p> <p>902 402 900</p> <p><a href="http://www.funerariavascongada.com">www.funerariavascongada.com</a></p>
	<p>Berreskurazozina da galdu duzuna. baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.</p>	



17°  
13°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	18°
HOTZENA	9°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta/Leizor:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Belauntza,  
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agurrak**



**Zorionak!**

**Jose Luis Izaguirre.** Gaur 86 urte.  
Zorionak eta ondo pasa etxeko  
guztien partetik.

**Urte askoan osaba Gari!**

Txokomarrubizko muxutxo goxoak, zaindu eta eutsi goiari!



Eutsi goiari!! Osasuna, maitasuna eta askatasuna!

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** M. I. Kale Nagusia, 7.  
Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Larraia, M.I.  
Elbaren, 95.  
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**hirukide**  
KALITATEZKO HEZKUNTZA  
TOLOSA  
943 670 311  
www.hirukide.net

**ORIXETOLOSA**  
Bigarren Hezkuntza Institutua  
Institut de l'Éducation Secondaire  
**MUNDU ZABALERAKO  
ZUBIA**  
**Batxilergoak**  
Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak  
**Irakasgaien  
Eskaintza Zabalena**  
943 65 13 87  
E-mail: 012980aa@hezuntza.net www.orixe.net  
**Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 11ra**

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info